

AKTA

Udalbatza eratzeko bilkura

EGUNA: 2023ko ekainaren 17a, larunbata

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 10:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 10:17

BERTARATUTAKO ZINEGOTZI HAUTATUAK:

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) KOALIZIO POLITIKOA

- Anuska Esnal Oleden
- Olatz Santamaria Bereziartua
- Xabier Iburguren Azkue
- Ainara Munduate Iguaran
- Bittor Andres Alkorta
- Iñaki Makazaga Urdangarin
- Lohitzune Solaberrieta Odriozola
- Iosu Lizarralde Ibarbia
- Nagore Rementeria Argote
- Inaxio Alguacil Barrenetxea

EUZKO ALDERDI JELTZALEA (EAJ) ALDERDI POLITIKOA

- Noemi Ostolaza Arkauz
- Lourdes Salsamendi Goñi
- Jon Basurko Sarasua

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Adin-mahaia eratzea.
- 2.- Udalbatza eratzea.
- 3.- Alkatea aukeratzea.

Esan-eginak

1.- ADIN-MAHAIA ERATZEA.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du bilkura honen xedea Udala eratzea dela, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.1 artikuluan agindutakoa betez. Lege hori, besteak beste, honako lege hauek aldatu zuten: apirilaren 2ko 1/1987 Lege Organikoak; martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak; azaroaren 2ko 6/1992 Lege Organikoak; martxoaren 30eko 13/1994 Lege Organikoak eta martxoaren 23ko 3/1995 Lege Organikoak; maiatzaren 30eko 1/1997 Lege Organikoak; ekainaren 15eko 3/1998 Lege Organikoak; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 37.1 artikulua.

Idazkariak bilkura hasi ondoren, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan aurreikusitako adin-mahaia osatu da.

Adin-mahaia honela osatuta geratzen da:

- **Presidentea:** Lourdes Salsamendi Goñi, 57 urte, zinegotzi hautatu zaharrena.
- **Mahaikidea:** Olatz Santamaria Bereziartua, 32 urte, zinegotzi hautatu gazteena.
- **Udal-idazkaria:** Jon Carrera Jauregi, bilkura honetako idazkari ere badena.

2.- UDALBATZA ERATZEA.

Adin-mahaiak zinegotzi-agiriak aztertu ditu, eta baita eskualdeko hauteskunde-batzordeak udaletxera bidalitako ziurtagiriak ere, zinegotzi-agiriak eta ziurtagiriak bat datozela frogatzeko.

Aurreko eragiketa egin ondoren, eta kontuan hartuta bilkura honetara zinegotzi hautatu guztiak biltzen direla, adin-mahaiaren presidentek karguaz jabetu ditu zinegotzi hautatuak, hauteskunde-legerian legez ezarritako formularen arabera promesa edo zina egin ondoren, eta udalbatza formalki eratutzat jo du.

Jarraian, bertaratutako zinegotziak gonbidatu ditu ondasunen udal-inbentarioa eta kontu orokorra aztertzeraz, oharren bat egin nahi badiote ere, eta inork ez du ezer adierazi. Hori guztia, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bateginaren 86. artikuluan eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 33.2 artikuluan xedatutakoa betez.

3.- ALKATEA AUKERATZEA.

Idazkariak gogorarazten ditu zein diren, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikulua araberaz, alkatea aukeratzeko baldintzak:

- Zinegotzi diren zerrendaburu guztiak dira hautagai.
- Zinegotzi hautatu guztiak dira hautesle.
- Txartel sekretu bidez egingo da aukeraketa, bozketa bakarrean.
- Botoen legezko gehiengo osoa lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez, 7 boto lortu beharko dira.
- Inork ez badu bozketa horretan gehiengo osoa lortzen, automatikoki aldarrikatuko da alkate hauteskundeetan boto-kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua. Berdinketa izanez gero, zozketa bidez erabakiko da.

Horren berri eman ondoren eta gaiari buruz idazkaritzan dauden aurrekaritan oinarrituz, alkategai izendatzen dira zinegotzi hautatu hauek:

- **ANUSKA ESNAL OLIDEN**, EH Bildu koalizioako zerrendaburua.
- **NOEMI OSTOLAZA ARKAUZ**, EAJ alderdi politikoko zerrendaburua.

Idazkariak txartel zuria ematen dio hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela alkate izateko bere botoa ematen dion zinegotziaren izen-deiturak, eta txartela tolestuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botoen kontaketa egiten da eta idazkariak ozen irakurtzen ditu alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-deiturak. Kontaketa emaitza hau da:

- **ANUSKA ESNAL OLIDEN**, 10 boto.
- Boto zuriak, 3 boto.

Idazkariak bertan daudenei txartel guztiak eta egindako eragiketa aritmetikoa egiaztatzeko aukera ematen die. Ondoren, txartelak puskatu egiten dira.

Bozketaren emaitza ikusita, Anuska Esnal Oliden zinegotzi hautagaia (EH Bildu) aldarrikatzen da udal honetako alkate, 10 boto jaso dituelako, udalbatza osatzen duten 13 kideen legezko gehiengo osoa.

Jarraian, Anuska Esnal Oliden zinegotzi hautatuak adierazten du onartu egiten duela Udaleko alkate-kargua eta, hauteskunde-legeriak ezarritako formularen arabera promesa egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du udalbatzarraren aurrean. Kargua edukitzeak barnean hartzen ditu indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumen, eskubide eta obligazio guztiak.

Ondoren, idazkariak udalbatzarrari adierazten dio —eta hau jakinaren gainean gelditzen da— zinegotzi hautatuetatik zeintzuk egin duten interesen eta jardueren aitorpena; hauek dira:

- Anuska Esnal Oliden
- Olatz Santamaria Bereziartua
- Xabier Ibarguren Azkue
- Ainara Munduate Iguaran
- Bittor Andres Alkorta
- Iñaki Makazaga Urdangarin
- Lohitzune Solaberrieta Odriozola
- Iosu Lizarralde Ibarbia
- Nagore Rementeria Argote
- Inaxio Alguacil Barrenetxea
- Noemi Ostolaza Arkauz
- Lourdes Salsamendi Goñi
- Jon Basurko Sarasua

Era berean, idazkariak honen berri ematen dio udalbatzarrari: zinegotzi hautatu guztiak egin dutela dagokien bateraezintasun-arrazoien aitorpena. Jakinarazten du, baita ere, aitorpen horiek inskribatu direla horretarako prestatutako erregistroetan.

Adin-mahaiaren presidentek, Lourdes Salsamendi Goñik, aginte-makila ematen dio Anuska Esnal Oliden alkate izendatu berriari eta zorionak ematen dizkio izendapenagatik

Segidan, alkate izendatu berriak hartzen du hitza eta eskerrak ematen dizkie, batetik, Orioko herriari eta, bestetik, gaurko bertaratuei, eta adierazten du erabateko erantzukizunez beteko duela alkate-kargua. Esaten du, baita ere, gogora ekarri nahi dituela agintaldi honetan alkate gisa errepikatzea posible egin duten pertsona guztiak eta, bereziki, emakumeak. Adierazten du udalbatzarraren aretoan gizonak izan direla nagusi ia beti, eta berak gogora ekarri nahi dituela, bereziki, Orioko herria pixkanaka eraldatzen joan diren emakumeak: lehen andereñoak, saregileak, eskabetxerak, herriko taldetan sartzan hasi ziren lehen emakumeak (Talai-Mendin, Ostargin, Salatxon, Arraun Elkartean, futboleko edo eskubaloian) eta beste horrenbeste emakume, herria aldatzen eta gaur egungo egoera sortzen lagundu dutenak.



Bukatzeko, eskerrak ematen dizkie alkatetzara iristen lagundu dioten pertsona guztiei eta hitzematzen du lanean jarraituko duela, oriotarren bizi-kalitatea hobetzeko ilusioarekin.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,